

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2012ko urriaren 12a. IX. urtea. 2.415. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Baserriko Argia eskulturaren gerizpean aurkeztu zuten Zizurkilgo XV. Azoka Berezia. A. IMAZ

Azoka berezien txanda, Zizurkil eta Leaburun

Igandean izango dira azokak; Leaburu-Txaraman goizean egongo dira postuak eta ardoa nola egiten den ere ikusi ahal izango da, eta Zizurkilen, aldiz, azoka egun guztian zehar egongo da eta 'Baserriko argia' eskulturaren hamargarren urteurrena dela eta, ekitaldi bat egongo dute **o6**

Mahai inguru batekin hasiko dira Kasinoko Mikologia Jardunaldiak

Datorren asteazkenean hasi eta larunbatean bukatuko da Tolosako elkarteak antolatutako astea; elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa mikologikoa ere egingo dute aurten **o4**



Mikologia Jardunaldietan parte hartuko duten sukaldariak. LURKIZU

Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu dute Otaegik eta Mujikak, gaur, Donostian

Aizkora Txapelketan «ahal dutena» emango dutela diote zizurkildarrak eta ibartarrak; txapelaren lehia Azurmendiren eta Olasagastiren artean egongo dela diote **o7**

Ana Eloegi

Berdintasun gaietan aditua


«Txikiekin aritzean, konturatu gabe hanka sartze asko egiten dira»

Saiaz mankomunitateko berdintasun plana eta Tolosan genero indarkeria prebenitzeko plana dinamizatzen ditu

Elkarrizketa **o2**

EZ GALDU
EHBilduko Marian Beitialarrangoitia eta EAJko Maria Eugenia Arrizabalagaren arteko
buruz burukoa

Urriaren 17an
19:00etan
Tolosako udaletxeko batzar aretoan

Antolatzaileak: **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza** ^{info}  

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73



→ Laburrak**'Mobilizazioa eta transferentziak' ikastaroa**

AMEZKETA > Mobilizazioa eta transferentziak izeneko ikastaroa emango du Amezketa Lahar elkarteak Pakea Galdosek. Ikastaroa azaroaren 7an, 8an eta 9an izango da, 17:00etatik 20:15era. Gehienez 20 ikaslek partehartu ahaliko dute ikastaroan. Ikastaroa doan da, Gipuzkoako Foru Aldundia-ren laguntzarekin finantzatuta baitago. Hainbat gai jorratuko dira ikastaroan: mobilizazioa eta lekualdatzeak, atsedena, garbiketa, jantzia, elikadura, medikazioa, komunikazioa, ordenagailua, oroimena, etxetik mugitzea, bainugela, logela eta sukaldia. Izena emateko 663 05 72 23 telefono zenbakira deitu edo formakuntza@laharelkargoa.org helbidera idatzi behar da.

Hirigintza eta beste batzorde batzuen bilera

AMEZKETA > Hirigintza, Kultura eta Ingurumena batzordeen bilera egingo dute hilaren 15ean, astelehena, 20:30ean, udaletxeko osoko bilkuran. Bestek beste, Zumadi eskolako konponketen inguruko informazioa emango da.

Gorputzarekin komunikatzen ikasteko

TOLOSA > Altzoan elkarkeak Gorputzarekin komunikatzen izeneko tailerra antolatuta du. Hilaren 20ean izango da, 18:00etatik 20:00etara, Tolosako kultur etxean. Heldu eta haurrei (5 urtetik aurrera) zuzendutako ikastaroa da eta helburua «norberaren gorputzaren entzumenaz, naturaltasunaz, sormenaz gozatzeko» da. Ikastaroko hizkuntza gaztelania izango da. Helduek 15 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 5 euro. Informazio gehiagorako eta izena emateko cuerpovivimiento@gmail.com helbidera idatzi edo 667 43 77 98 zenbakira deitu behar da.

**Ana Elozegi ◦
Berdintasun gaietan aditua**

Berdintasunaren alorrean «egunerokoan lan handia dago egiteko», azaldu du Harremanak Hezkuntza Elkarteak kideak.

«Berdintasunaren inguruan prebentziorik gabe ezin da ezer egin»**Imanol Garcia Landa**

Saias mankomunitatean, tartean Bidegoian eta Albiztur herrietan, Berdintasun Planaren bigarren urtearekin hasi dira. Tolosan, bestalde, genero indarkeria prebenitzeko plana martxan jarri dute. Harremanak Hezkuntza Elkarteak ari da bi plan horiek dinamizatzen eta bertako kidea da Ana Elozegi psikologoa.

Bidegoian eta Albizturren abian dagoen Berdintasun planak zer ezaugarri ditu?

Plana egin aurretik diagnostiko bat egin zen eta hor mankomunitatean berdintasunaren alorrean dauden gabeziak detektatu ziren. Gure elkarrekin harremanetan jarri zen Saias mankomunitatean, diagnostikoan ikusi ziren beharren inguruan plan bat egiteko. Iaz jarri zen abian plan hori. Kontuan hartu behar da landa eremuko herriak direla eta orokorrean berdintasunaren inguruan lan gutxi egin dela Euskal Herri mailan eremu horretan. Guk proposatu genuen alor batzuk hartzea, hortik lanean hastea eta gero zabaltzen joatea.

Landa eremua izateak zer suposatzen du?

Gune hauetan kostatu egiten da gai hauek jorratzea, erresistentzia maila handiak daudelako. Emakume baserriararen historian ere bai, beren bizitzeko moduagatik, isolatuagoak daude. Azken finean, faktore batzuek

zailtzen dute gai hau jorratzea; orokorrean isolatuta bizi dira, ez da kalean bezala, bata bestearen ondoan bizi direla; emakumeak isileko lan asko egin du; eta landa eremuko bizitza bera, lana eta familia lotuta egon direla. Hala ere, ezustekoa hartu dugu, aurretik gizarte zerbitzuek lan handia egin dutelako, eta gure zerbitzua lan baten ondorioz etorri da. Helduekin egiten ditugun kafe tertulietan gizonetako bat dago Bidegoian, eta hori aipatzekoa da.

Zein alorretan jarri duzue martxan plana?

Batetik, hezkuntza formalean, Bidegoiano eta Albizturko eskoletan, Lehen Hezkuntzan irakasle, guraso eta ikasleekin berdintasuna eta sexu heziketako saioak ematea. Horrez gain, aholkularitza zerbitzu bat dute, ikasturtean zehar zailtasunen bat edo kezka-aren bat badute, guregana jotzeko. Gazteentzako saioak eman dira bi herrietan, eta parte hartzea nahiko ona izan da. Emakumei eta gizonetako begira kafe tertulia ereduak asmatu genuen. Lehen esan bezala, tentuz jorratu behar den gaia delako, eta hitzaldiak egin beharrean egokiagoa ikusi dugulako kafe tertuliak antolatzeko jendea elkartzeko. Hilean behin 15 pertsona etorri izan dira eta saio horiekin jarraitzen dugu. Gai zehatz batzuk eramanen ditugu, gaurkotatzen dituenak, eta horrez gain maitasuna, heziketa, bikote harremanak, landa eremuko bizia, beti ere berdintasuna eta prebentzioa ardatz hartuta. Bestalde, menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzendutako bi saio egin dira eta arrakasta izan dute.

Erakundeekin lotura estua duzue plana aurrera eramateko.

Berdintasun Plan hau interesgarria da hainbat esparru ukitzen dituelako. Koordinazio estua dugu mankomunitateko gizarte zerbitzuekin; bien artean diseinatzen ditugu ekintza eta ebaluaketa guztiak. Gazte teknikariarekin ere harremanetan gaude eta udal politikariek ere bere babesa



16L

eman diote, konpromisoa eskatzen duen plan bat delako.

Tolosan abian jarritako planak zer ezaugarri ditu?

Gure planteamendua beti da txikitatik hastea, eta bizitza guztian jarraitzea. Garai bakoitzean gai batzuk jorratu daitezke. Tolosan hezkidetzaren eta sexu heziketa lantzen ditugu, emozioen gaiei garrantzia handia emanez. Azkenean nahi duguna da, jendeak formakuntza jasotzea eta gero, zailtasuna izanez gero, jakitea hemen gaudela. Eskoletan berdintasunaren gaia lantzea. Batzuetan egiten zen eta orduan errefortzu bat suposatzen du plana. Tolosako lau urtera begira den proiektua da. Eskola guztiek parte hartuko dute. Hasiko gara haur hezkuntzako irakasleak formazten eta etapaz etapa batxilergoko irakasleenganaino iritsi arte. Geletan ere izango gara. Bestalde, aholkularitza zerbitzu bat irekiko da, Gazte Topagunean, hileko azken ostegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Gazteak zein edozein herritar joan ahal izango dira bertara. Eskoletarako ere aholkularitza zerbitzua izango da eta eskola kirola egitasuna moko begiraleek ere formazioa jasoko dute. Ikastetxeek esku zabali jaso dute plana eta udaletik ere politikoki konpromiso handia dago proiektu honekin.

Gai honetan prebentzioak berebiziko garrantzia du, ezta?

Bestela ezin da ezer egin. Guk 20 urte daramatzagu lan honetan eta beti deitu izan digute DBHko laugarren mailarako eta batxilergoko bigarren mailarako. Gako batzuk ematen ditugu, baina ereduak eta eskemak oso eginak daude. Txikiekin aritzean, baina, konturatu gabe egiten diren han-

ka-sartze asko egiten dira, guk horrela jaso ditugulako. Umeei txikitatik hasten zaie bi bide oso markatuak erakusten, bat neska-rena eta bestea mutilarena, horrek atzetik dakarren guztiarekin. Gero nerabetasunean asko sufritzen da, gauzak ez baitira horrela, aniztasun batean bizi gara, eta bizi beharko ginatke.

Jendea ez da ohartzen, hortaz, askotan berdintasunaren aurkako jarrerak hartzen dituela.

Hori guk horrela jaso dugulako da. Horregatik buelta batzuk eman behar zaizkio gaiari eta horregatik da garrantzitsua Haur Hezkuntzako irakasleei formakuntza ematea. Bi urteko haurrei eskolan esaten zaie, adibidez, ama joango zaiela bila, baina egun ama edo aita joan daitezke bila. Edo haurrak mina hartzerakoan, amak sendatuko diola esaten diogu, baina aitak ere hori egin dezake, ezta? Nahigabe mezu asko ateratzen dira.

Lanean daramatzazuen urte guzti horietan aldaketarik ikusi al duzue?

Nik uste dut pausoak eman direla. Egun politikoki ez da zuzena berdintasunaren kontra zaudela esatea, baina gero egunerokotasunean lan handia dago egiteko. Guk gehien lantzen duguna da pertsona bakoitza ezberdina dela, nahiz mutila edo neska izan, eta aniztasun horretan mila kolore daudela.

Egunerokotasunean ikustea erraza ez den berdintasunaren aurkako jarreraren adibiderik eman al zenezake?

Esaterako, DBHn eredu maskulino trinko horretan sartzen ez diren mutilak asko sufritzen dute. Emakumei kostatu egiten zaie bere plazerra eskatzea eta bermatzea, edo ezetz esatea.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →

EH Bilduko Gipuzkoako zerrendaren lehen hamar hautagaiak; ezkerretik laugarrena Lorea Agirre alkizarra da. I.G.L.

Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzea lortuko duela dio EH Bilduk

EH Bilduko Gipuzkoako zerrendaburuek, Xabier Isasik eta Pello Urizarrek, mitina eman dute Tolosan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Xabier Isasi eta Pello Urizar EH Bilduko Gipuzkoako zerrendako lehen bi hautagaiak Euskal Herriak bere etorkizuna erabakiko duela esan dute Tolosan egindako mitinean. Beotibar frontoian izan dira, ondoan Gipuzkoako zerrendako lehen hautagaiak eta eskualdeko hainbat alkate dituztela.

Urizarrek hartu du hitza lehengo eta datozen EAEko hauteskundeetan «alternatiba bakarra» EH Bildu dela esan du. «E.A.J.k ez du proposamenik egin», eta PSE-EEk eta PPK «gure

aurrerapausoak etetea eta Euskal Herriari inposaketak ezartzearekin jarraitzea besterik ez dute nahi», esan du Urizarrek. Raxoi-entzat ere hitz batzuk esan ditu: «Euskal Herria ez da burugabekeria bat. Aldaketa herritarrekin egingo dugu eta gizarteak bere etorkizuna erabakiko du. Hori horrela izango da». Katalunia eta Euskal Herria gabe Espainia ez dela bideragarria gaineratu du Urizarrek eta Espainiatik horren kezka dutela. Bestalde, Urizarrek gogoan izan du lehen aldia dela hauteskundeetara «ezkertiar eta independentista talde handiena» aurkezten dela. «Zulotik aterako gara, politika beste modu batera eginez», gaineratu du eta «lan asko» dagoela egiteko esan du.

Isasik, bere aldetik, «Europar dabilen independentziaren tren» ezin dela galdu esan du, eta Eskozia eta Katalunia aipatu ditu adibide gisa. Bere agerpena Lasa

eta Zabala oroitzuz hasi du, eta «biktima guztien oinazea» kontuan izan behar dela gaineratu du, eta «erabateko konpromisoa» azaldu du etorkizuna «bakez eta oroimenez» eraikitzeke. Tolosarrak «euskararekiko eta askatasunerako» konpromisoa erakutsi dutela gogoan izan du eta EH Bildurekin konpromisoa hartzeko deia egin du. Bestalde, «bazterketa eta pobrezia» aurkako neurriak hartu behar direla gaineratu du eta zenbait proposamen egin ditu, besteak beste, lanaldia murriztea, gutxieneko soldata igotzea eta pentsioen sistema propioa bultzatzea. Tolosaldeari dagokionez, kudeaketa publikoko ospitalea eta espezialitateko ambulatorioa behar duela esan du Isasik. Hitzaldiaren amaieran, burujabetasunaren bidea hartu behar dela eta «eraldaketa nahi duten abertzaleak eta ezkertiarak» bildu behar direla esan du.

Saralegi eta Olaizola I.arentzat «partida gogorak»

Saralegik Albisuren aurka jokatu du, bihar, Tolosan, eta Olaizolak I.ak, gaur, Idoateren kontra

I. Garcia Landa

Ekaitz Saralegi amezketarrak eta Leitzan bizi den Asier Olaizolak Lau t'erdiko Pilota Txapelketako kanporaketako partidak jokatu dituzte asteburuan. Saralegi Albisuren aurka jokatu du Tolosan, bihar. 17:00etan hasiko da jaialdia eta bere partida hirugarrena izango da. Olaizolak Lekunberrin jokatu du gaur, Idoateren aurka. Jaialdia ere 17:00etan hasiko da, eta bere partida bigarrena izango da. Biek «partida gogorak» izango direla aurreikus-ten dute.

Saralegik ez du bere burua faboritizat, aurrelaria izan eta Albisu atzelaria bada ere: «Albisu atzelaria bada ere, ondo moldatzen da Lau t'erdian. Jauzi handia egin du, bi esku onak ditu eta sake ona du». Horrez gain, pilotari amezketarrak zenbait kezka ditu bere jokorekin: «Udan ondo aritu naiz, baina gero behatza puska-tu nuen eta geldirik egon naiz. Ondoren, lau edo bost partida jokatu ditut, baina segida handirik gabe. Entrenamenduetan ere, egun onak eta ez hain onak tarte-katu ditut».

Bi pilotariek ezagutzen dute ondo Beotibar pilotalekua, eta, Saralegik argi du ez dela aitzakiarik izango frontoiari dagokionez. Aurtengo txapelketaren joko sistemak aurreko postuetan

ibiltzen ez direnei abantaila gehiago ematen dizkiela dio Saralegik: «Bi partida irabazten badituzu ligaxkan sartzen zara. Guztira zortzi pilotari ariko dira eta aukera gehiago dituzu. Hala ere, pilotari handiak daude eta zaila izango da hor sartzea». Txapela janzteko faborito garbiena Olaizola II.a ikusten du: «Azken bi urteetan erakusten ari den jokoa-reatatik bera da faborito. Hortik aurrera, aukera zabaldu egiten da».

«Ez da niretzat egokiena»

Olaizola I.ak argi du aurrera egingo zaila izango duela: «Idoatek aurreko bi partidak nahiko erraz irabazi ditu. Partida irabazten saiatuko naiz, baina gogorra izango da». Lau t'erdia ez dela beretzako distantziarik hobereana aitortu du Olaizolak: «Sekula ez naiz ondo moldatu. Enpresak erabaki du nik txapelketan parte hartzea eta beti gustatzen zait lehiatzea. Buruz burukoan hobeto moldatzen naiz, Lau t'erdikoan teknika gehiago behar da. Ahal dudana egingo dut».

Lekunberriko frontoia ezagutzen du, profesional mailan gutxi-tan jokatzeko bada ere. «Profesional izan aurretik asko jokatu genuen bertan. Ezker paretatik ez da beti garbi ateratzen pilota, baina frontoia ondo dago jokatzeko».

Txapelketa irabazteko zein izango diren faborito galdetuta, «betikoak» izango direla dio. Anaiaz gain, Irujo eta Barriola sartu ditu zerrendan eta Bengoetxea ere distantziara oso ondo moldatzen dela esan du. Olaizolak ez du baztertzeko ezustekoren bat izatea.

EUSKADI AURRERA

urkullu.eu eaj pnv

PROGRAMA

Hitar emanen dit.

2007. urtean hil zen Mariona Masgrau txotxongilolaria. Titirijarekin izandako harreman estua zela eta, haren semeak Topic zentroari eman zion bere ondarea, eta erakusketara osatu dute zenbait pieza aukeratuta.

Senak sortutako panpinak

Itzea Urkizu

Mariona Masgrauk bi lan leerro ikusien zituen bere lanean: bat zehaztua eta bat zehaztekoa. Bata arrazionala zela zioen berak, eta hasiera eta amaieraraino testuaren oinarrituriko txotxongiloak sortu zituela. Beste, ordea, senarekin loturikoa zela uste zuen kulturalistak. «Auzaren prozesuaren hasierak ez du zertan testu bat izan behar; irudi bat izan daiteke, gertara bat, musika bat, pentsamendu bat, galdera bat, egoera animiko bat...». Horiak guztiak oinarri hartuz, taldearekin lanari ekiten zion Mariona Masgrauk, senari jarraituz panpinak sortuz.



Mariona Masgrauk da erakusketara koordinatu duen arduraduna. Urtaru

Mariona Masgrau. *Didato* bat txotxongiloren munduarekin egitasmo pedagogikoa da, alde batetik. Izan ere, lasurtzentzako nahiz helduentzako jenetan ikusi ahal izango dira. Topic zentroak antolatzen duen hamargarren adibaterako erakusketak da, eta zentroko Mariona Sebastian arduradunak azaldu duenez, «oso gustura» dauka, «emakume garrantzitsua baitzen txotxongilolaritzaren munduan».

Mariona Masgrauk ez zuen Topic zentroko txotxongilolaria izan, baina bere seme Octavi Rumbau Masgrauk, ordea, gertu geratu zituen zatiak. Txotxongilo lanetarako asko ere ikusgai izango dira erakusketan. Topic zentroko arduradunak hainbat pieza ikusgai dauka Topic zentroko erakusketan, eta beste ere, laur eta gutxiago zuzendutako txotxongiloak dira.

Gerora, ordea, kompania utzi eta bakarlari moduan ekin zion txotxongilolaria izan. 2002an izan zen azkenekoa Tolosan. *De tanto que te quiero* izeneko oharrekin. Txotxongilo lanetarako asko ere ikusgai izango dira erakusketan. Topic zentroko arduradunak hainbat pieza ikusgai dauka Topic zentroko erakusketan, eta beste ere, laur eta gutxiago zuzendutako txotxongiloak dira.

Ondare baten aberastasuna Mariona Masgrauk ez zuen Topic zentroko txotxongilolaria izan, baina bere seme Octavi Rumbau Masgrauk, ordea, gertu geratu zituen zatiak. Txotxongilo lanetarako asko ere ikusgai izango dira erakusketan. Topic zentroko arduradunak hainbat pieza ikusgai dauka Topic zentroko erakusketan, eta beste ere, laur eta gutxiago zuzendutako txotxongiloak dira.


guzti-guztia Topic iurtea erabaki zuen», azaldu du Mariona Sebastian erakusketako arduradunak. Horrela beraz, 200 pieza baino gehiagoko ondare horretako ale batzuk aukeratu dituzte erakusketara osatzeko. «Askotariko txotxongiloak» daudela nabarmentzen du Mariona Sebastian, panpinen formatu daigokienez ere: «Eskulturagile zen Mariona Masgrau, berez, eta hasita penetan egindako txotxongiloak, askoz ere plustatu zituen eta handiagoak dira. Izan ere, zeramizko buru eta goipuzti atxiki egiten zituzten panpinak».

Emakume protagonista Erakusketak haurrentzako hainbat pieza eskaintzen dituen

Bertako informazioari bertako produktuari

Egin **HITZAN** hurrengoan: urtarraren 19a eta 20a artean **Itzea** eta **JASO** bertan **guztia**, **leizaldelako hitza** eta **OPARI**.

hitza



arren, Mariona Masgrauren bizitzako azken urteetako txotxongiloak ere ikusgai dira: helduak zuzendutakoak dira azken hauek. 1995. urtean hasi zen Masgrau, bakarlari moduan, eta emakumeak gaitzak hartu zuen hamalaka eta bat alde: «Oso feminista zena», azaldu du Mariona Sebastianek. Hau dela eta, Tolosan ikusgai den erakusketan oso nabaria da emakumezko panpinen pre-



Xabier Martinez, Jose Mendizabal, Pedro Pasaban eta J. Luis Donetxe, aurkezpenaren buruak

Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa mikologikoa izango da

Kasino elkarteak antolatutako Mikologia Jardunaldiak asteazkenean hasiko da, mahai inguruetan.

2008an 125. urteurrena bete zuten Kasinoko mikologia jardunaldiak, eta urteurrenaren atzian berreskuratu zuten egitasmoa. Orain, Jose Mendizabal Kasinoko kideak azaldu duenez, «jardunaldiak finantzatu eta urte luzer mantentzea» da beren helburua.

Horrela beraz, datorren asteazkenean igandera bitarte luzatuko diren jardunaldien, auruko urteetako egitura mantentzeko, eta edukiak bete dute.

Besteak beste, mahai inguruak, ikasleekin mendu dira, azoka eta erakusketak izango dira 2012ko Mikologia Jardunaldietako hitzak. Aurten, ordea, lehiaketa berria martxan jarri dute Kasinoko elkarteak antolatutakoak.

Eskualdeko elkarteek perretako nahiz ondoko egindako platerak prestatu beharko dituzte datorren ostiralean. Zerkausian, 2 orduko span. Behin egina, hainbat bere erabakiaz hartzen duen, prestatutakoak bertaratu eta onartuko dituzte.

Sukaldaritza egarrituak ez da aldeni gabe, eskualdeko sukaldariak ere arloko dira pintxoak prestatzen, lasurtentzako, eta agitekoak da, Mirador de Ulia jantegikoan, Trianguladoren sukaldaria ere Zerkausian izango dela.

etolosa@hitza.info

Itzea Urkizu

Duela hiru urte berreskuratu zuten Kasino Jardunaldiak asteazkenean hasiko da, mahai inguruetan.

• Egitaraua

URRIAK 17, ASTEAZKENA	de Ulia jantegiko sukaldari Ruben Trincadoren eskutik. Hainbat perretako mota prestatuko izango da.	• 19:00. Eskualdeko elkarte gastronomikoen sukaldaritza mikologikoa lehiaketa izango da Zerkausian.
• 17:20. Mikologiari buruko mahai inguruak. Regulación micológica: esta es la cuestión. Javier Gómez Urutia, Jose Miguel Galarraga eta Pedro Arriaga arloko dirazlari moduan.	URRIAK 19, OSTIRALA	• 12:00. Azoka mikologikoa Trianguloan. Hainbat sukaldari perretako eta ondoren pintxoak prestatuko dituzte, eta ikasleek bildutako perretikoen erakusketak ere izango da.
URRIAK 19, OSTEGUNA	• 09:00. Tolosaldeko ikastetxeetako DBH I mailako ikasleek perretikoak bilduko dituzte Aralarren, eta Aranzadiako kideek sailkatu egingo dituzte.	
• 18:20. Hitzaldi mikro-gastronomikoa Zerkausian, Mirador		

BIHAR inBEGendentzia

17.30ean BARRAKALDON EKITALDI NAZIONALA

BOZKATU **ehbildu**

Baserritar eta artisauen lana ikusgai, Leaburu eta Zizurkilen

Leaburu-Txaramako Ganadu, Artisau eta Barazki Azokak 09:00etan zabalduko ditu ateak, 14:00etan itxeko

Zizurkilen 'Baserriko Argia' eskulturaren X. urteurrenean ekitaldi berezia egingo dute

Asier Imaz

Leaburutik Zizurkilera edo Zizurkiletik Leaburura, urriaren 14an, azokatik azokara ibiltzeko aukera egongo da eskualdean.

Leaburu-Txaramako IV. Ganadu, Artisau eta Barazki Azokak 09:00etan zabalduko ditu ateak, 14:00etan postuak biltzen hasteko. Artzain-andrez jantzita bertaratzea eskatu dute antolatzaileek, eta giroa borobiltzeko, ez da musikarik faltako. Berezitasunen artean, Nafarroako piperrak eta ardo egite erakustaldia egongo dira Leaburuan, igandean. Horrez gain, bertako produktuek erosteko eta dastatzeko aukera egongo da. Gosez gelditzen denak, bazkaria edukiko du Zazpi Bide elkarteak, 14:30an, Sustrai Colina eta Julio Soto bertsoariekin. Ziur herriko baserritarren lanari bertso bat baino gehiago eskainiko dizkiela bi Sotok eta Colinak.

Zizurkil Goian goizez eta arratsaldean egongo da azokara joateko aukera. 50 postu baino gehiago lotu dituzte antolatzaileek, eta oso gustura agertu dira egindako lanarekin. Argi azaldu nahi izan dute, igandeko azoka elkarlanean antolatu dutela, izan ere, udalarekin batera herriar ugari aritu dira prestakuntza lanetan. Urriaren 14an, plangintza guzti horrek bere fruituak emango ditu, eta 30

zizurkildar baina gehiago boluntario lanetan ikusteko aukera egongo da: trafikoa bideratzen, bazkaria zerbitzatzen, errifak saltzen...

Azokari dagokionez, Teodoro Hernandorena kalean herriko baserritarren zazpi postu eta beste hamazazpi elikagai postu egongo dira. Intxaur frontoian berriz, 23 artisauen lanak ikusteko parada izango da; hautetatik hiru herrikoak izango dira. Postu bereziak ere jarriko dituzte Zizurkilen: San Millan eta Otaño ikastetxeak; EBELeko kideena; El Salvadoroko Segundo Montes komunitatearen alde Otaño guraso eskolako kideen talo postua eta Herriraren Elkartasun erakusketa.

'Baserriko Argia'

Zizurkilgo XV. Azoka Berezia data seinalatua etorri da: *Baserriko Argia* eskulturaren hamargarren urteurrenean. Hori dela eta, emakume baserritarren lana aitortzeko eraiki zen arte lanaren ondoan, azalpen eta argazkiz osatutako panel txiki bat jarri eta inauguratuko dute azoka egunean, 11:00etan.

Baserriko Argia udalaren eta EBEL Emakume Baserritarren Elkarteen artean jarri zuten 2002an. Igandeko ekitaldiarekin garai hartako aitortpena berretsi nahi da, bi eragileen arteko harremanak berreskuratuz.



XV. Azoka Berezia *Baserriko Argia* eskulturaren ondoan aurkeztu zuten Zizurkilen, asteazkenean. A. IMAZ

↓ Urriaren 14ko azoken egitarauak

LEABURU

- **09:00-14:00.** IV. Ganadu, Artisau eta Barazki Azoka.
- **Goizean zehar.** Trikitilariak alaituko dute azoka. Haurrak zaldian eta bere gurdian itzuliak emateko aukera izango dute.
- **14:30.** Bertso bazkaria Zazpi Bide elkarteak, Sustrai Colina eta Julio Soto bertsoariekin. Sarrerak Leaburuko Ostatuan daude salgai, 18 eurotan.
- **Oharra:** Antolatzaileek herri-

tarrei eta gerturatzeko direnei, artzain andrez jantzita bertaratzea eskatu diete.

ZIZURKIL GOIA

- **11:00-14:30 eta 16:30-19:30.** Baserriko produktu eta artisauen XV. Azoka Berezia.
- **11:00.** *Baserriko Argia* eskulturaren X. urteurreneko ekitaldia.
- **12:00.** Haurrentzako aurpegi margoketa frontoi irekian.
- **13:00.** *Baserriko Argia Saria*

emango dute: Zizurkilgo baserritarren postu onenari eta Kantu Jirari.

- **14:30.** Herri bazkaria Zimitorioan. Txartelak Iriarte, Egarrri eta Atxulondo tabernetan daude salgai, 18 eurotan.
- **17:00.** Haurrentzako poneiak.
- **18:00.** Gipuzkoako II. Giza-proba txapelketako finala.
- **Oharra:** Bulardegi Bideko ibilbilgunetik, edo Zubiaurretxotik autobusa doan egongo da Zizurkil Goiko plaza, egun guztian.

Azokaren babesean giza probaren finala jokatuko dute

Zizurkilen Gipuzkoako txapelketa nor den erabakiko da; Aiztondo eta Berrobiko taldeak lehian ariko dira

A. Imaz Zizurkil

XV. Azoka Bereziaren barruan Taldekako Gipuzkoako Giza Proba Txapelketaren finala jokatuko da Zizurkil Goian urriaren 14an, igandean, 18:30ean hasita. Udaltxe aurreko plazan lau talde ariko dira txapelaren lehian, eta hautetatik bi eskualdekoak izango dira: Aiztondo eta Berrobi. Beste

bi finalistak Heldu! Orio eta Urretxoko Zortzikoak izango dira.

Hasiera batean 18:00etan hastekoa zen giza proba, baina azokaren antolatzaileek 30 minutu atzeratzea erabaki dute, «postuetakoek arratsaldean salmentarako tarte handiagoa izan dezaten». Iazko arrakasta ikusita, aurrean ere azoka egunean herri kirolerakustaldia antolatzea erabaki dute zizurkildarrek. Plazaren ezaugarriak kontuan hartuta gainera, bi talde berean lanean ikusteko aukera egongo da. Hau ez da batere ohikoa, normalean taldeak banaka egiten baitute proba, hau da, batek amaitzen duenean, bestea hasten da. Zizur-

kilen bakarrik gertatzen da aldeantzikoa, eta honek ikuskizuna aberasgarriago egiten du. Ikusleek ez dute sarrearik ordainduko, baina gastuei aurre egiteko, saski bat zozketatuko dute.

Txapelketaren ezaugarriak

Talde bakoitza zortzi lagunek osatzen dute giza proba txapelketan, eta 660 kilogramo sartu behar izaten dira.

Finalean, 30 minutuko lana egin beharko dute lau taldeek, 15 minutuko bi txandatan. 900 eta 1.000 kilo bitarteko harriak mugitu beharko dituzte, eta harriak ibilbide guztian zehar lurrean joan beharko du.

Donostia aldeko logistika enpresa batek KOMERTZIALA behar du,
Gipuzkoa eta inguruko herrialdeetan
lan komertziala egiteko.

Ekartzen dit:

- Gaitasun teknikoak, logistika, komunikazio, informazio teknologia, zuzenbidea
- Komertzializazioaren espezializazioak
- Herriko enpresen eta enpresa berrien laguntza
- Gidatze berria eta enpresen erakundeak

Bidali curriculuma: gizabaliabideak@bidera.eu helbidera,
KOM-ET-2012 erreferentzia jarrita.

Mujika eta Otaegi Gipuzkoako finalean

Donostiako Martutene auzoan «ahal dutena» emango dute gaur jokatu duten Aizkora Txapelketan

Iñigo Terradillos

Maila nagusiko Gipuzkoako Aizkora Txapelketa jokatu dute gaur, Donostiako Martutene auzoko ikastolan, 11:30ean hasita. Bertan eskualdeko bi aizkolari ariko dira, Jexux Mari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra, hain zuzen. Iñaki Azurmendi beasaindarra, Joxe Mari Olasagasti donostiarra eta Luis Mari Txapartegi zestoarrak osatu dute txapelaren lehian ariko diren aizkolarien zerrenda. Eskualdeko bi aizkolariet bat egiten dute esatean Olasagastiren eta Azurmendiren artean egongo dela txapelaren lehia, baina, hori bai, «ahal dutena» emango dutela diote, beraiek ere lehia horretan egoteko.

Sei pago-enbor ebaki beharko dituzte: 54 ontzako 4 kanaerdiko,



Jexux Mari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra. HITZA

60 ontzako 4 enbor eta 72 ontzako 2 enbor oinbiko.

Puntura iritsi gabe

Joseba Otaegik ez du bere burua ikusten beste urteetako mailan: «ahal dudana hobekien entrenatzen saiatu naiz, baina uste dut ez naizela beste urteetako puntu horretara iritsi». Izan ere, zizurkildarrak dioenez, uda honetan erakustaldi gutxiago izan dira, eta

horrek eragina du norbere maila neurtzeko orduan.

Bere ustez bi lehia egongo dira gaur, «bata txapela lortzeko borrokan ariko direnena, eta bestea mailaz ez jaisteko ariko direnena». Lehenengoan Olasagasti eta Azurmendi ariko direla dio, eta bestean beste hiru aizkolariak. Hori argi ikusten duen arren, egun on bat izanez gero edozer gerta daitekeela ere uste du Otae-

gik: «iaz bigarren amaitu nuen, beraz ez dago jakiterik; nik ahal dudana guztia emango dut, topera joango naiz».

Arerio nagusia, urduritasuna

Jexux Mari Mujika, bere aldetik, «gustura» dago bere buruarekin, eta gaurko arerio nagusia urduritasuna izango dela dio: «udan nahiko maila apalean ibili naiz, txispa hartu gabe, baina azken asteetan entrenamendua pixka bat aldatu dut, eta oso gustura aritu naiz; urduri jartzen ez banaiz, uste dut lan ona egin ahalko dudala».

Gaurko proban azken postuan amaitzen duenak maila galduko du, eta Mujikak gogoratzen du iaz nahiko juxtu aritu zela: «aurten ere Txapartegi eta biok borrokan arituko gara uste dut; Otaegik iaz lan ona egin zuen, baina orain ez dakit zein mailatan dagoen, eta beste biak ziur goian ariko direla». Gaurko erronkari «animoz beterik» egingo dio aurre: «hor egoteko aukera dut, lan handia da gaur egin beharrekoa, eta nik normalean nahiko ondo eutsi ohi dut horrelako lanetan», dio.

Azkue Egunerako materiala prestatuko dute, gaur, auzolanean

I. Terradillos Ibarra

Datorren larunbatean, urriaren 20an Azkue Eguna ospatuko dute izen bereko Ibarra auzoan. *Antidiana* batekin hasiko dute eguna. Haurrak izango dira bertako musikariak, beraiek egindako perkusio instrumentuekin edota bestelako musika tresnekin ariko direlarik.

Perkusio tresnak eta kalean jartzeko apaingarriak auzolanean egin asmo dituzte. Bada, auzoko haur eta gazte guztiak gonbidatzen dituzte gaur, 10:00etan, Gizarte Zerbitzuen lokalera azaltzera, material guztia guztien artean egiteko. Halaber, bestelako deirik ere egin dute antolatzaileek: auzotar guztiak gonbidatzen dituzte leihoak eta balkoiak apaintzera. Berde koloreko edozein oihal zintzilikatu behar da eta baita puxikak eta bestelako apaingarriak jarri ere.

Irudia ▶ Tolosa-Ibarra

HIZKUNTZ ANIZTASUNA PLAZARATUZ

Herritarrek Ibarra eta Tolosa-ko hizkuntza aniztasunaren berri izan dezaten, ekimena abiarazi du Galtzaundi euskara taldeak. Bi herri horietan hitz egiten diren hizkuntza guztiak ezagutaraziko dituzte kalean jarriko dituzten karteltxo bidez, eta horien inguruan galderak egingo dizkiete herritarrei. Familian eta lagunartean hizkuntza ugari hitz egiten direla, baina guztien artean komunikatzeko tresna euskara behar duela izan bultzatu nahi du euskara taldeak ekimen honekin. HITZA



**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



BEZEROEK ERE BADUTE SARIRIK

Aralar Kirolak dendak teta Txindokiko Itzala abentura parkeak elkarlanean antolatutako zozketak baditu saridunak: Migel Bermudez (ezkerrean) eta Iker Martinez. Azken honek ezin izan du saria jaso eta Sonia Gonzalez emazteak (eskuinean) jaso du. Irabazleek Irizar Azpikoan aterpetxean asteburuko egonaldi bat, Txindokiko Itzaleko zuhaitz parkeko sarrerak eta Aralar Kirolake eskainitako 150 euroko bonoa irabazi dute. Zozketaren arrakasta ikusita neguko denboraldian ere beste zozketa bat egingo dute. Oraingoan eskia-tzera joateko asteburu bat eta fondoko eski ikastaro bat eskeratu daiteke. Aralarreko edozein dendetan erosketa eginda parte hartu ahal da zozketan. R. CALVO

Agurrak



Zorionak Eneko eta Maddi!

Gaur, Maddik 6 urte beteko ditu, eta astelehenean, hilak 15, Eneko 8 urte. Segi beti bezain jator eta alai. Muxu handi bat lehengusu, osaba-izeba eta aitona-amonen partetik.

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Tolosaldeko Ikasle Abertzaleak gaurko Hispanitatearen Eguna ez duela ospatuko eta Laskorain ikastolan herri eskolak, Zukguaren aurkezpena eta abar egingo ditu.
■ **Anoeta.** Euskal Jaia: bihar, 17:30ean, sega ikastaroa; etzi, 09:30ean, herriko txistularien kalejira, 10:00-13:30 azoka plaza, goizean zehar euskal jantzien erakusketa, 12:00etan jaiaren aurkezpena eta ondoren postu politenaren sari banaketa eta ardo dastatzea, 13:30ean saskien zozketa, 14:00etan bazkaria, 17:30ean sokatira eta 18:30ean dantza emanaldia.
■ **Zizurkil.** Azoka Berezia igandean (ikus egitaraua 6. orrian).

JAIK

■ **Tolosa.** Berazubi auzoko jaiak. Gaur 09:00etan diana, 14:00etan paella txapelketa eta bazkaria, 17:30ean zezen-txoak, 18:30ean txokolate jatea, 21:30ean zahagi sagardoa, 23:00etan Triki-sound eta Manillares Iturriaga, eta 02:00etan BerazubisGhetto IcePUNTZK DJ. Bihar, 12:30ean tortilla txapelketa eta sagardo zirria, 16:00etan mus txapelketa 17:30 jokoak eta txokolate jatea, 22:30ean danborrada, 00:00etan disko festa Xabi Dantzalekurekin, 03:00etan Komertzial Musik DJ Lorontzi, 06:00etan txokolate jatea. Igandean 09:00etan txistulariak, 14:00etan bazkaria,

16:30ean toka eta 18:00etan eskujokoak eta akrobaziak.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidorren gaur *Si de verdad quieres*; bihar 19:30ean eta 22:30ean *Mátalos suavemente*; igandean 17:00etan *Freddy Igeldegihaur* zinea, eta 19:30ean eta 22:00etan *Si de verdad quieres*; astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean *Mátalos suavemente*.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Bonberenean gaur, Xabier San Sebastian Band eta Lauroba 22:30ean, eta bihar, ordu berean, Leihotikan eta Memo.

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. I.

Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
Gauekoa: Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairizien erantzukizunik.

Elketa Jatetxea



- ◆ **Eguneko menua** (astelehenerik ostiralera)
- ◆ **Plater konbinatuak** (ostiral, larunbat eta igande gauetan)
- ◆ **Menu berezia** (larunbat eta igande eguerditan)

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •
Erreserba egiteko: 943 65 21 16
www.elketa.com